



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 22a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu bat datorrela kirolean sexu- eta identitate-orientazioarengatik eta genero-adierazpenarengatik diskriminazioa egotearen aurkako borrokarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, ingurumen txosten aurkakoa duten energia berriztagarrien azpiegitura proiektuei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (4. or.).
- Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko haur eskoletako tarifak murrizteari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, 29/2021 Errege Lege-dekretuak elektrizitatearen prezioari dagokionez biltzen dituen neurrien eraginkortasunari eta efizientziari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, I+G 2022-2025 proiektu estrategikoak egiteko laguntzen deialdien bidez ezarritako erronkei erantzuteko helburu eta xedeei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Justiziaren digitalizazioaren arloan abiarazten ari diren neurriei buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Berdintasun Planaren atzerapenari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Mina Muga ustiategiari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (8. or.).
- Galdera, osasun arloko oinarritzko araudia eguneratzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, honako mozio hau betetzeari buruzkoa: zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko obran 1/2021 Agindu Zirkularra ez betetzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren kargu-uzteari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako industria proiektuak Europako funtsekin finantzatzea bermatze aldera Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak hartutako ekintzei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Europako funtsetatik Nafarroako AHTrako 145.000.000 euro iristeko aurrekontuaren eta egutegiaren plangintza bat izateari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, toki entitateak 2022an finantzatzeko Transferentzia Arrunten Funtzari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskola-sistemako ikasleen eskolaldia arautzeko duen planari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak osasunaren arloko profesionalen aurkako erasoak ekiditeko aurreikusten dituen neurriei buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Etxabakoitz, Sanduzelai, Milagrosa, Txantrea, Lezkairu eta Buztintxurin etxebizitza babestuen eraikitzeak Iruñeko Udalarekiko hitzarmenari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (14. or.).
- Galdera, bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleko lehiatu ahal izan daitezen Nafarroako Kirolaren Institutuak esku-hartzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, TEN-T Revision - SPAIN txostenari buruzkoa. Ainhua Aznárez Igarza andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren menpeko haur eskoletako 0-3 zikloko postu berriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko fiskalitate berdea beharrezko tresnatzat jotzen ote den deskarbonizazioaren eta trantsizio energetikoaren bidean. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer ekintza gauzatuko diren osasun arloko profesionalen lan- eta ordainsari-baldintzak betetzeko. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, oinarritzko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko dekretu berriari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epearen luzapena (18. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa. Proposamenak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu bat datorrela kirolean sexu- eta identitate-orientazioarengatik eta genero-adierazpenarengatik diskriminazioa egotearen aurkako borrokarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du bat datorrela kirolean sexu- eta identitate-orientazioarengatik eta genero-adierazpenarengatik diskriminazioa egotearen aurkako borrokarekin.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere borondatea agertzen du araudiak ezartzen jarraitzearen aldekoa, kirolaren arloko profesional guztien inplikazioarekin: entrenatzaileak, irakasleak, zuzendari-

tzako kideak; denek beharrezko prestakuntza izan dezaten jokabide intolerante oro aurreikusi eta apaldu ahal izateko.

3.- Nafarroako Parlamentuak sentsibilizazioko neurri guztiak babestuko ditu kirol inguruetan, klubetan, publikoaren artean, eta abar, aipatu xedearekin ezartzen direnak, pertsona guztiak errespetatzera bideratutako ekintzak indartzeko, edozein dela ere haien sexu-orientazioa edo genero-nortasuna”. (10-22/DEC-00009).

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, ingurumen txosten aurkakoa duten energia berriztagarrien azpiegitura proiektuei buruzkoa.*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, ingurumen txosten aurkakoa duten energia berriztagarrien azpiegitura proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gómezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022ko otsailaren 10ean Nafarroako Gobernua kontrolatzeko egindako Osoko Bilkuran, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak iragarri zuen duela gutxi bere departamentuak Templarios, Aldana, Sierra de Tabar eta Kresada parke eoliko proiektuen aurkako txostenak eman dituela. Esan zuen, baita ere, sustatzaileak jakinarazi zuela abalak erretiratu zituela eta gaitzespen sozial handia eragin duten proiektu horiei guztiei uko egiten ziela.

Lau proiektu horietako hiruk 50 MW-tik gorako potentzia dute eta, horrenbestez, Estatuaren eskumenekoak dira, kasuko ministerioaren bidez.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuaren aldetik aurkako txosten bat izanik, ezetsi eta, horrenbestez, erretiratu egingen dira txosten horretan aztertutako proiektuak, eskumena Nafarroako Gobernuarena edo Estatuarena dela ere?

Iruñean, 2022ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko haur eskoletako tarifak murrizteari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea 0tik 3 urtera bitarteko haur eskoletako tarifak murrizteari buruz Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak iragarri du 0tik 3 urtera bitarteko haur eskoletako tarifak berriro murriztuko direla eta doakoak izanen direla errenta baxuenentzat.

Zer eragin izanen du tarifen murrizketak Nafarroako herritarrengan eta foru erkidegoko hezkuntza-eskaintzan?

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, 29/2021 Errege Lege-dekretuak elektrizitatearen prezioari dagokionez biltzen dituen neurrien eraginkortasunari eta efizientziari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, 29/2021 Errege Lege-dekretuak elektrizitatearen prezioari dagokionez biltzen dituen neurrien eraginkortasunari eta efizientziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Geroa Baikook ekintza benetan argiak eta erabilgarriak bota ditugu faltan bai gobernu zentralaren aldetik bai Europako Batzordearen aldetik, energia elektrikoak 2021 osoan zehar izan duen etengabeko garestitzeari galga jartzeko. Ekintza irmo eta erabilgarriak, horrenbestez, herritarren interesen aldekoak.

Iazko ekainaren 24an, Estatuko gobernuak erabaki zuen salbuespenez eta aldi baterako –2021eko abenduaren 31ra arte– beherapen bat ezartzea BEZaren zerga-tasan ehuneko 21etik ehuneko 10era, 10kw baino gutxiagoko energia elektrikoko kontratuetan –etxebizitzak eta enpresa txiki eta ertainen zati bat–, bai eta eragiketa kostuetako beste bat murriztea ere, hain zuzen, Ener-

gia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.

Ziurtzat jo zuen neurri horiekin lortuko zuela elektrizitatearen faktura murrizteko helburua, baina, agerikoa denez, ez da hala izan; izan ere, egun gutxi batzutan tarifa elektrikoaren igoera ehuneko hori baino askoz handiagoa izan zen. Egiazki, prezioa etengabe igo da urte osoan zehar.

Nafarroak zerga horiei buruzko kudeaketa-eskumenak ditu soilik, ez arautzekoak, eta, hori dela eta, Estatuak ezarritakoarekin harmonizatu behar izan zituen, eta horrek ekarri du foru erkidegoaren diru-sarreraren 30 milioi inguruko murrizketa 2021ean.

Bestelako neurri batzuk ezartzeko aukera aintzat hartu gabe, Estatuak, 29/2021 Errege Dekre-

tuaren bidez, berriro luzatu du xedapen hori 2022ko lehen hilabeteetarako, eta horrenbestez, Nafarroan ere aplikatu beharko dugu. Neurri horrek, oraingoz, 15 milioi gutxiago biltzea ekarri du.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari:

Uste duzu Nafarroak hartu behar izan dituen neurriak, bere diru-sarreraren murrizketan hain eragin handia izan dutenak, gobernu zentralak aurreikusitako eraginkortasuna eta efizientzia izan dutela herritarrek ordaindu beharreko elektrizitatearen prezioari dagokionez?

Iruñean, 2022ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, I+G 2022-2025 proiektu estrategikoak egiteko laguntzen deialdien bidez ezarritako erronkei erantzuteko helburu eta xedeei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, I+G 2022-2025 proiektu estrategikoak egiteko laguntzen deialdien bidez ezarritako erronkei erantzuteko helburu eta xedeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresariareko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela zenbait egun argitara eman zen Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendaritza nagusiaren 2E/2022 Ebazpena, laguntza deialdia onesten duena 2022-2025 aldian I+G proiektu estrategikoak egiteko.

Deialdiak 16 milioi euroko zenbatekoa biltzen du, xede edukita zazpi erronka zehatz, Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategian (S4) identifikatutako sektoreekin lerrokatuak (automozioa eta mekatronika, elikakatea, energia berriztagarriak eta baliabideak, osasuna, turismo integrala eta sorkuntza industriak eta industria digitalak).

Horiek guzti-guztiak argi definituta eta zedarrituta daude:

– 1. erronka: VOLTA VI. 0 isurketako ibilgailuak, irismen luzekoak eta teknologia aurreratukoak.

– 2. erronka: AERO VI. Energia berriztagarriak biltzeiratzeko, horien erabilera optimizatzeko.

– 3. erronka: GEMA VI. Genomika eta medikuntza aurreratua.

– 4. erronka: ALPES V. Elikadura pertsonalizatua eta jasangarria.

– 5. erronka: IRIS IV. Adimen artifiziala eta robotika industriarako eta gizarterako.

– 6. erronka: IDEIA IV. Goraka ari diren ideia disruptibo aplikatuak.

– Eta, azkenik, 7. erronka: SIBERIA IV. Bioteknologiako konponbide berritzaileak energiarako, osasun arloko erronketarako, industriarako eta nekazaritzako elikagaien industriarako.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garaipen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari:

Zein dira zure Departamentuak markatutako helburuak eta zer xede lortu nahi dira ezarritako erronkak betetzearen bidez?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Justiziaren digitalizazioaren arloan abiarazten ari diren neurriei buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak Justiziaren digitalizazioaren arloan abiarazten ari diren neurriei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

egiten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santosek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren pandemiak agerian utzi du espediente elektronikoaren beharra. Beste alde batetik, Ministroen Kontseiluak onetsi egin du Justiziako zerbitzu publikoaren efizientzia digitalari buruzko Legearen aurreproiektua; Efizientzia Prozesalari buruzko Legearekin eta Antolaketaren Efizientziari buruzko Legearekin batera, lege-oinarria da 2030 Justizia Planerako, Justiziaren zerbitzu publikoa eraldatzeko eta efizienteago bihurtzeko xedez.

Zere neurri ari da abiarazten Migrazio Politike-tako eta Justiziako Departamentua justiziaren digitalizazioaren arloan, justiziaren zerbitzu publikoa efizienteagoa, irisgarriagoa eta gardenagoa izan dadin?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

Galdera, Mina Muga ustiategiari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak Mina Muga ustiategiari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak otsailaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Hedabideei esker jakin dugu uda honetan hasiko direla Mina Muga instalatzeko obrak.

Zer iritzi du Gobernuak ustiaketa horri buruz?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Berdintasun Planaren atzerapenari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak Berdintasun Planaren atzerapenari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués-ek ahoz erantzun dezan:

2021Eko ekainean María Chivite Navascués-ek iragarri zuen berdintasun plan berria urte bukaerarako egonen zela prest. Urtea hasi eta oraindik ez dakigu ezer aipatu planari buruz.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du atzerapen horri buruz?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, osasun arloko oinarrizko araudia eguneratzeari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak osasun arloko oinarrizko araudia eguneratzeari buruz aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den legegintzaldian Nafarroako Parlamentuko talde politikoei parte hartu zuten osasunari buruzko foru lege berri baten prestaketan, osasun sistema eraldatzeari ekiteko, etorkizuneko belaunaldiari bermatu ahal izateko "osasun sistema publiko, unibertsal eta kalitatezko bat".

Nafarroako Gobernuak bilera-txandak egin zituen talde parlamentario guztiekin, sindikatuekin, profesionalekin... legea ahalik eta adostasun handienarekin prestatu ahal izateko. Lan horiei esker arauaren helburuak sintetizatzen zituen agiri bat sortu zen.

Zoritxarrez, legegintzaldia amaitu zen osasunari buruzko foru lege berria onetsi gabe.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Osasuneko kontseilariak asmorik al du erabiltzeko, legegintzaldi hau amaitu baino lehen, aurreko legegintzaldian garatu zen lana, sintesi agiri batean gauzatuta, osasun arloko oinarrizko araudia eguneratzeko foru lege berri baten bidez?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, honako mozio hau betetzeari buruzkoa: zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, honako mozio hau betetzeari buruzkoa: zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda

dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko maiatzaren 6an Nafarroako Parlamentuak Geroa Baik aurkeztutako mozio bat onetsi zuen, talde guztiek aldeko botoa emanda, salbu eta Nafarroako Alderdi sozialistak. Mozioak Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko.

Halaber, gehiengo berarekin onetsi zen Nafarroako Gobernuak lege horren erregelamendu bidezko garapena ezar dezan, halako moduan non bateragarriak izan ahalko baitira Nafarroako

arkitektura eta kultur ondarea zaintzeko behar diren bermeak eta ondare horren energia-efizientzia maximizatzea eta energiaren autokontsumo berriztagarriko instalazioak paratzea gure erkidegoko eraikin publiko eta pribatuetan.

Horretarako, Kultur Departamentuaren parte hartze logikoaz gainera, eskatzen zen prozesu honetan egotea Lurraldearen Antolamenduko Departamentua, toki entitateak eta ukitutako elkar-teak.

Mozio hori onetsi zenetik bederatzi hilabete ira- ganik, mozioak eskatzen duena betearazi behar duen Departamentuko arduradun gisa –Vianako Printzea Erakundea organikoki Kultura Departamentuaren menpe dagoelako– galdetu egiten dizugu ea zer urrats egin den denbora horretan Parlamentuak onetsitakoa praktikan jartzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko obran 1/2021 Agindu Zirkularra ez betetzeari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko obran 1/2021 Agindu Zirkularra ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohe- siorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zergatik ez da betetzen ari 1/2021 Agindu Zirkularra, 2+1 errepideak eta aurreratzeko errei gehigarriak diseinatzeko gomendioei buruzkoa, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko obran?

Nafarroan, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren kargu-uzteari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren kargu-uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer arrazoi izan du Nafarroako Gobernuko Komunikazioko zuzendari nagusia kargu-gabetzeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako industria proiektuak Europako funtsekin finantzatzea bermatze aldera Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak hartutako ekintzei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako industria proiektuak Europako funtsekin finantzatzea bermatze aldera Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak hartutako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Departamentuak zer egin du Nafarroako industria proiektuak Europako funtsekin finantzatzea bermatze aldera?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Europako funtsetatik Nafarroako AHTrako 145.000.000 euro iristeko aurrekontuaren eta egutegiaren plangintza bat izateari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Europako funtsetatik Nafarroako AHTrako 145.000.000 euro iristeko aurrekontuaren eta egutegiaren plangintza bat izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak aurrekontuaren eta egutegiaren plangintzarik egin al du dagoeneko, Europako funtsetatik Nafarroako AHTrako 145.000.000 euroak iristeari begira?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, toki entitateak 2022an finantzatzeko Transferentzia Arrunten Funtsari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, toki entitateak 2022an finantzatzeko Transferentzia Arrunten Funtsari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilariak toki entitateak finantzatzeko lege proiektua aurkeztu du. Bertan agertzen denaren arabera Transferentzia Arrunten Funtsaren zuzkidura 257.859.026 eurokoa izanen da 2022rako.

Zer irizpide erabili du Departamentuak zenbateko hori finkatzeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskola-sistemako ikasleen eskolaldia arautzeko duen planari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskola-sistemako ikasleen eskolaldia arautzeko duen planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran Hezkuntzako kontseilarik ahoz erantzun dezan:

Zein da Hezkuntza Departamentuaren plana Nafarroako eskola-sistemako ikasleen eskolaldia arautzeko eta zein dira haren oinarri nagusiak?

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Osasun Departamentuak osasunaren arloko profesionalen aurkako erasoak ekiditeko aurreikusten dituen neurriei buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak osasunaren arloko profesionalen aurkako erasoak ekiditeko aurreikusten dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2022ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zer neurri aurreikusten du Osasun Departamentuak osasun arloko profesionalen aurkako erasoak ekiditeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Etxabakoitz, Sanduzelai, Milagrosa, Txantrea, Lezkairu eta Buztintxurin etxebizitza babestuak eraikitzeke Iruñeko Udalarekiko hitzarmenari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Etxabakoitz, Sanduzelai, Milagrosa, Txantrea, Lezkairu eta Buztintxurin etxebizitza babestuak eraikitzeke Iruñeko Udalarekiko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Etxabakoitz, Sanduzelai, Milagrosa, Txantrea, Lezkairu eta Buztintxurin etxebizitza babestuak eraikitzeke Iruñeko Udalarekiko hitzarmena?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleko lehiatu ahal izan daitezen Nafarroako Kirolaren Institutuak esku-hartzeari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleko lehiatu ahal izan daitezen Nafarroako Kirolaren Institutuak esku-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer nolako esku-hartzea izan du Nafarroako Kirolaren Institutuak bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleko lehiatu ahal izan daitezen?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, TEN-T Revision - SPAIN txostenari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, TEN-T Revision - SPAIN txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak otsailaren 24ko Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Behin ezagututa TEN-T Revision - SPAIN araudia, non Europako Batzordeak berrikusten duen Europan Barnako Garraio Sarea eta aztertzen dituen Europar Batasuneko azpiegiturak, zer jarduketa egin gogo ditu Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Gobernuaren menpeko haur eskoletako 0-3 zikloko postu berriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren menpeko haur eskoletako 0-3 zikloko postu berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ostegunean,

2022ko otsailaren 24ko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 18ko 3/2022 Ebazpenak, funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2022-2023 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura onesten du.

Hezkuntzako kontseilariak iragarri zuen 391 postu publiko sortuko zirela 2022-2023 ikasturterako eta tarifak murriztuko zirela.

Iruñeko Udalaren menpeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) haur eskolak doakoak izanen dira, Udalak bere deialdian iragartzen duen araber.

Nola banatzen dira 391 postu berriak 2022-2023 ikasturterako, Nafarroako Gobernuaren menpeko haur eskoletako 0-3 zikloan eta zer kostu izanen dute familientzat?

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakiteko fiskalitate berdea beharrezko tresnatzat jotzen ote den deskarbonizazioaren eta trantsizio energetikoaren bidean.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko fiskalitate berdea beharrezko tresnatzat jotzen ote den deskarbonizazioaren eta trantsizio energetikoaren bidean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak otsailaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Fiskalitate berdea beharrezko tresnatzat jotzen duzu deskarbonizazioaren eta trantsizio energetikoaren bidean aurrera egiteko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, jakiteko zer ekintza gauzatuko diren osasun arloko profesionalen lan- eta ordainsari-baldintzak betetzeko.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer ekintza gauzatuko diren osasun arloko profesionalen lan- eta ordainsari-baldintzak betetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ekintza zehatz gauzatuko ditu aurtien Nafarroako Gobernuak osasun arloko profesionalen lan- eta ordainsari-baldintzak betetzeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko dekretu berriari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko dekretu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaukotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak 2022ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer ekarri die toki entitateei oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko dekretu berriak?

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea.

HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

1. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patrona-

tukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2022ko martxoaren 10eko 17:30ak arte** luzatzea. (10-22/ELC-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari erabaki proposamenak aurkezteko epea

2022ko martxoaren 1era arte luzatzea .(10-21/CDP-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
